

Oliver Sacks, *Antropologo bat Marten*.

Euskal Herriko Unibertsitatea (Zientzia Irakurle Ororentzat bilduma, 1).

Itzultzailea: Xabier Olarra

Masajista itsu batek ikusmena berreskuratu ondoren sentitzen du zoritxar handia izan dela hori; al baitari autista batek abere-hiltegiak diseinatzen ditu, animaliei tratu gizatiarra emateko. Kirurgialari batek operazio gelan eta aireplanoak pilotatzen bakarrik kontrolatzen ditu gaixotasun neurologiko batek eragiten dizkion etengabeko tikak; margolari batek koloreak ikusteko ahalmena galdu du istripu baten ondorioz; mutiko autista batek zehaztasun eta doitasun handiko marrazkiak egin ditzake txikitatik, eta ospea irabazten du horri esker. Ipuinak izan zitezkeen, baina kasu klinikoak dira; halere, kontakizun literarioak balira bezala irakurtzen dira Oliver Sacks neurologoaren liburu honetan.

Euskal Herriko Unibertsitateak “ZIO – Zientzia Irakurle Ororentzat” izenez hasi duen testu bilduman jakintza-arlo askotako ikasleentzat eta unibertsitatetik kanpoko jendearentzat erakargarri gerta daitezkeen eta, beren kalitateagatik, erreferentzia moduan erabil daitezkeen espezialitate-itzulpenak egongo dira; eta lehen zenbaki honek bikain betetzen du bildumak duen helburua: maila guztietako irakasleek, institutueta eta fakultateetako ikasleek eta beste profesional askok osatzen duten euskal irakurle multzoari goi-mailako dibulgazio liburua bat eskaintzea, literatura balioa ere baduena eta irakurtzeko atsegina.

Oliver Sacks doktoreak autismoa eta Touretteren sindromea bezalako gaitz mentalak aztertu ditu bere lan bizitza luzean zehar, eta horietako batzuri buruz idatzi dituen kontakizunek milaka irakurle eskuratu dizkiote mundu osoan. Izan ere, historia medikoak izanik ere, giza-xarma handia dute beren baitan, eta erakusten dutena ez da medikuntzak ohituta gauzkan txosten hotzak, bere kontakizunetan ez baitigu azaltzen gaitz bat sendatzeko ahaleginak, ezpada paziente bakoitzak gaitzak eraldaturiko mundu batean bere nortasunari eusteko daraman borroka baizik. Horregatik, hemen heroia ez da medikua ezta medikuntza bera ere; heroiak gaixoak dira, hain zuzen, sortzezko edo jasandako ezgaitasun larri batetik nolabaiteko onurarik ateratzen ikasi dutelako, pertsona bezala haziz jarraitzeko, baita baldintza mentalik guretzat beldurgarrietan ere.

Sacks doktoreak idatzitako historietako batzuk ezagunak zaizkigu zinera ere eramanak izan direlako, Robbin Williams eta Robert de Niro protagonista zituen “Esnaldiak” edo “Awakenings” filmekoa bezala; arrakasta hori ulertzeko beste gako bat ezin da ahaztu, alegia, mundu anglosaxoian dextenteko interesa dagoela literatura mediko-antropologikoak azken hamarkadetan garatu duen “eritasunaren kontaketa” delakoaz. Baina, baita ere, haren liburuek literaturari zentzua ematen dion dohain nabari bat dutelako: bizitzaren gozarre bat dira. Izan ere, Sacksek gizakiaren barrenean, haren gogamenean, haren oroimenean kokaturik azaltzen digu bizitza, eta eritasunaren, galeraren eta desberdintasunaren aitzakiaz nortasuna ukatu nahi dion kanpoko munduaren erasoaren aurka borrokatzera beharturik dauden gizon-emakume batzuk aukeratzen ditu biziaren aldeko aldarri hori gureganatzeko, eritasun mental batzuek sormen indar paradoxikoa izan dezaketela erakutsiz.

Hori dena dotore aurkeztutako liburuki batean, itzulpen bikainarekin, bai eta irakurle euskaldunek soilik izan dezakegun gehigarri bat: CD-Rom bat, liburu eta egilearen aurkezpena,

obra honetako lexikoaren hiztegi elebiduna, euskarazko ehundaka hitz haien testuinguruan bilatzeko aurkibide bat eta, Internet bidez, liburuko esaldi bakoitza bi hizkuntzetan parekaturik aurkitzeko sistema; dena oso baliagarria eta baliotsua zientzia alorrean diharduten euskaldunentzat.

Koldo Biguri